

2002/03/21eko **prentsa-oharra****ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)****2002ko otsaila**

BIDAIARIEN SARRERAK %7 ETA GAUALDIAK %6 IGO DIRA 2002KO OTSAILEAN

Bisitari-kopuruaren hobetzea estatukoetara (%+8) zein atzerrikoetara (%+3) zabaldu da

2002ko otsailean, 93.109 bidaiari-sarrera erroldatu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hil berean baino %7 gehiago. Igoera horrek 6.000 sarreratik gorako urte arteko gehikuntza ekarri du. Bidaiarien sarrerek aurreko urteko datuak gainditu dituzte hiru herrialdeetan, baina haien intentsitatea ez da homogenea izan: Araban eta Gipuzkoan %12 eta %11 igo dira, hurrenez hurren; Bizkaian, aldiz, hazkunde txikiagoa lortu zuten, %1ekoa.

Estatutik datozen bisitarien sarrerek %8ko gehikuntza lortu dute Euskal AE osoan; atzerriko bidaiarien kopurua, berriz, %3 hazi da. Bi talde horiek Araban eta Gipuzkoan igo dira. Bizkaian, aldiz, jaitsi egin da atzerriko bidaiarien kopurua (%-5).

Estatutik datozen bidaiarien artean, igo egin dira Katalunia eta Madrildik datozenak, bai eta Euskal AEtik beretik datozenak era, nagusiki. Jaitsi egin dira, besteak beste, Valentziako Erkidego, Gaztela eta Leon, eta Gaztela-Mantxatik datozenak. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da Erresuma Batutik datozen bidaiarien igoera, eta Italiatik datozenen jaitsiera.

2002ko otsailean izandako gaualdiak 165.192ra iritsi dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino ia 10.000 gehiago. Kopuru horrek %6ko igoera ekarri du ehuneko-baliotan. Egindako gaualdien kopuruak hazkundeak izan ditu Gipuzkoan (%13) eta Bizkaian (%5); Araban, aldiz, %3 murriztu da. Izan ere, herrialde horretan gehiago murriztu da estatuko bidaiarien batez besteko egonaldia.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena zertxobait laburtu da 2002ko otsailean, eta joan den urteko 1,78 egunetik azken urte honetako 1,77 egunera pasa da. Batez besteko egonaldia nabarmen jaitsi da Araban (1,90 egunetik 1,65era), eta horrek azaltzen du gaualdiak herrialde horretan jaitsi izana, nahiz eta bidaiarien igoera handia gertatu den (%12). Bizkaian kontrakoa

gertatzen da: bidaiarien kopuruak gehikuntza txikia izan du (%1), baina gaualdien hazkunde handiagoa lortu du (%5), batez besteko egonaldiaren hazkuntzagatik. Gipuzkoan gehikuntzak berdintsuak dira bi aldagaietan.

Betetze-maila hobetu egin da plazako (%3) zein gelako (%4) Euskal AE osoan. Urte arteko aldiari betetze-maila gehien hobetu dute Gipuzkoako hotel-establezimenduek; Bizkaikoek egonkor iraun dute, eta plazakako betetze-maila jaitsi egin da Araban.

Nekazalturismoa: gualdiak (%7) eta, neurri txikiagoan, bidaiarien sarrerak (%1) igo dira

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 4.212 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko otsailean, urtebete lehenago baino %1 gehiago: Araba (%18) eta Gipuzkoa (%8) hazi egin dira; Bizkaia, berriz, %12k jaitsiera izan du.

Nekazalturismo sektorean egindako gualdiak 9.156ra iritsi dira, hau da, 2001eko otsailean baino %7 gehiago. Gaualdien gehikuntzak Gipuzkoan (%9) eta Bizkaian (%9) gertatu dira; izan ere, azken herrialde horretan igoera nabarmena izan du bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupenak (%24); Araban, aldiz, guztiz kontrakoa gertatu da (%-15).

Argibide gehiagorako, deitu hona:

	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34 945 01 75 00 Fax:+34 945 01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel:+34-945-01 75 06 Fax:+34-945-01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
2002/02	%	2001/02	%	D%		2002/02	%	2001/02	%	D%		2002/02	%	2001/02	%	D%		2002/02	%	2001/02	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	93.109	100	87.192	100	7	19.349	100	17.298	100	12		37.691	100	37.350	100	1		36.069	100	32.544	100	11	
Estatukoak	70.543	76	65.329	75	8	16.245	84	14.733	85	10		26.789	71	25.834	69	4		27.509	76	24.762	76	11	
Atzerrikoak	22.566	24	21.863	25	3	3.104	16	2.565	15	21		10.902	29	11.516	31	-5		8.560	24	7.782	24	10	
GAUALDIAK	165.192	100	155.589	100	6	31.949	100	32.872	100	-3		71.752	100	68.175	100	5		61.491	100	54.542	100	13	
Estatukoak	119.795	73	113.826	73	5	26.071	82	27.195	83	-4		47.566	66	44.764	66	6		46.158	75	41.867	77	10	
Atzerrikoak	45.397	27	41.763	27	9	5.878	18	5.677	17	4		24.186	34	23.411	34	3		15.333	25	12.675	23	21	
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,77		1,78		-1	1,65		1,90		-13		1,90		1,83		4		1,70		1,68		1	
PLAZAKO BETETZE MAILA	36,93		35,85		3	42,39		46,02		-8		38,77		38,85		0		32,91		29,14		13	

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERA	4.212	100	4.161	100	1	724	100	611	100	18		1.488	100	1.690	100	-12		2.000	100	1.860	100	8	
Estatukoak	4.060	96	4.006	96	1	692	96	554	91	25		1.456	98	1.620	96	-10		1.912	96	1.832	98	4	
Atzerrikoak	152	4	155	4	-2	32	4	57	9	-44		32	2	70	4	-54		88	4	28	2	214	
GAUALDIAK	9.156	100	8.545	100	7	1.612	100	1.605	100	0		3.584	100	3.292	100	9		3.960	100	3.648	100	9	
Estatukoak	8.484	93	7.783	91	9	1.408	87	1.377	86	2		3.412	95	2.872	87	19		3.664	93	3.534	97	4	
Atzerrikoak	672	7	762	9	-12	204	13	228	14	-11		172	5	420	13	-59		296	7	114	3	160	
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,17		2,05		6	2,23		2,63		-15		2,41		1,95		24		1,98		1,96		1	
PLAZAKO BETETZE MAILA	16,92		16,28		4	16,69		17,58		-5		19,72		20,24		-3		15,06		13,46		12	

Iturria: EUSTAT